

Deialdi bat kaleratu baino lehen, bertako erakundeak honako hau egin behar du:

- Lankidetzarako duen aurrekontua proiektu desberdinen artean zatitua izango den jakin behar du, edo proiektu bakar baterako izango den, edo beste udalerrri eta bertako entitateen aurrekontuarekin batera erabiliko den kostu handiagoa duen proiektu bati laguntzeko. EUSKAL FONDOAK ez du gomendatzen 30.000 euro baino gutxiagoko deialdia egitea.
- Proiektuentzako deialdi bat, hau da "lehiaketa publikoa", irekitzea bidezkoa den erabaki, edo dagoeneko udalerrrian elkartasun harremanak badauden ikusi, elkarlanerako konpromiso egonkorrak erraztuko dituztenak, alorrerako hitzarmenak edo denbora baterako hitzarmenak eginaz.
- Deialdia bere kabuz erabakitzeko ahalmena izango duen, edo kanpoko laguntzarik beharko duen erabaki; horretarako, aukera honen zenbatekoa jakin beharko du (Euskal Fonda deialdietarako aholkularitza komuna prestatzen ari da, hala eskatzen duten eta partaide diren erakundeentzat).
- Goiko galderak jasotzen duten erantzuna kontutan hartuz, erakundeak erabakiko du Deialdi bat irekiko duen ala ez. Irekitzekotan, eta oinarriak zeintzuk diren erabaki baino lehen:
- Elkarlanerako irizpide eta lehentasun propioak zehaztu: bete nahi diren helburuak, geografi eta sektore lehentasunak, horrela, Deialdiak lankidetzarako politika isla dezan; horretarako, interesgarria izango litzateke udalerrrian dauden elkartasun harremanak berriro aztertzea.
- Deialdiari emango zaion zenbatekoa zehaztu eta Elkarlanerako Partidatik zein zati gera daitekeen deialditik at zehaztu, noizean behin ematen diren larrialdi egoerak edo larrialdi humanitarioei erantzun ahal izateko, udal elkarlanari buruzko sentsibilizazio eta informazio kanpainak egiteko, elkarlanean ari diren beste erakundeekin batera proiektuak egiteko (EUSKAL FONDOAREN esparruan).
- Denbora kalkulatu: egokiena, Deialdia urtero egitea da (urtero hilabete edo egun berean); lehenengo hiruhilekoan kaleratuz uda baino lehenago erabaki daiteke, oporretan izaten den geldialdia eta urte amaierako estualdiak saihestuz (argi dago, aurrekontuen onarpenak mugak jartzen dituela, baina beste eremu batzuetan bezala, aurrekontua luzatuz lan egin daiteke).